

Imanol Alvarez

IRAKASLEA

Txanpon beraren alde biak

Telediarioetan berri txarrak baino kontatzen ez diren bezala, hau bezalako artikuluxka gehienetan kontu ustez gaiztoak erabili ohi ditugu gure berri-
ketarako. (Barkatuko didazue *telediario-
etan* esan izana, *gauregunetan* esan beharrean, baina nire ume-gazte garaietan telediarioak baino ez geneuzkan, eta adin batetik gorakooi izugarri kostatzen zaigu holakoak ordezkatzeko). Gaurko ataltxoan, aldiz, salaketa batekin hasiko naizen arren (ifrentzua), zerbait positiboa ere aipatuko dut (aurkia), oreka emozionalari eutsi ahal izateko ezinbestekoa baitugu begirada baikorrak ematea, noizbehinka bada ere.

IFRENTZUA: Lehengo astean aita hil zitzaigun. Berak nahi bezala, Derion dagoen Bilboko udal hilerrira gorpua erraustera joan ginenean, krematorio-ko aretoan geundela, hango ardura-dunak hurbildu, “badator kapilaua” esan eta, besterik gabe, gizon bat sartu eta otoitz egiten hasi zen. Erdaraz, jakina. Onartzen dut oraindik ere Bilbo batean jende gehienak nahiago izaten duela –ohituraren ohituraz– errito katolikoa erabili eta erdaraz egitea. Ordea, estatu laiko batean egongo bagina, denon eskubideak bermatuko balira, galdetu egin beharko ligukete, behintzat, ea otoitzik nahi dugun, ea euskaraz ala erdaraz, ea zein erritotakoak garen... Ez dut



INIGO AZKONA

uste administrazioak inolako erlijio-zerbitzurik eskaini behar duenik, baina argi daukat, eskaintzekotan, herrian existitzen diren erlijio oro hartu beharko lituzkeela aintzat. Ni neu irainduta sentitu nintzen. Aita galtzeak eraginiko minari gehitu behar izan nion Udalaren mesprezuzko trataerak eta inork deitu ez zuen apaiz haren portaerak eraginikoa. Noiz enteratuko ote dira gure agintariak estatu laiko batean ez dela bidezkoa errito katolikoak lehenestea eta, horrela eginez gero, ehunka, milaka hiritar laidoturik eta atsekabeturik senti daitezkeela?

AURKIA: Lagunak urteak daramatza metal arloko lantegi batean beharrean. Lehengo egunean, kasualitatez, bere kontratua ikusi nuen eta, nire harridurarako, ondoko hau irakurri: “...kaleratua izateko arrazoiak hauek dira: portaera matxistak, arrazistak, homofoboak...”. Berez, horrela izan beharko luke, baina tamalez batere ohituta ez gaudenez –are gutxiago metal arloan–, esan gabe doa izugarri poztu nintzela, iruditua baitzitzaidan urtetako borrorak zerbaitetarako balio izan duela. Gutxien-gutxienez aurreko eguneko etsipenari aurre egiteko baliagarri suertatu zitzaidan.

Horra hor gizarte beraren, txanpon beraren, bi aldeak. Edo, agian hobeto esanda, hamaika aldeetako bi. ■

«
Bere kontratua ikusi nuen
eta, nire harridurarako,
ondoko hau irakurri:
“...kaleratua izateko arrazoiak
hauexek dira: portaera
matxistak, arrazistak,
homofoboak...”
»

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Ez zebilen adarra jotzen. Aurtengo Tourreko egonaldia-
ren bukaeraren bezperan alokai-
ruaren ordainketa egiten ari ginela, etxeko jabeak heldu den urteko etapak hantxetik pasa eta Tourmaleten bukatu behar zuela esan zigun. Datarik gabe, baina etxea nahi izanez gero guretzat gordeko zigula. Gure harridura ikusita, ezin zigula gehiagorik esan baina segurantza osoa zuela gaineratu zigun. Gure insistentziari irri tikiak eginez, dudarik ez egiteko eta baietz, baietz, hori hala izango zela erronkan agurtu gintuen. Hitza hitz lege, etxea xede konpromi-

Zerbait bazekien

dabil datorrenaren egitaraua Internet lekuko eskurgarriena. Eta goitik behera, ezker-eskuin baieztatu da jabearen esana, bere etxetik igaro eta gainean bukatzen da etapa bat. Honek adierazten du garbiki tokiko komertzianteen indarra erabatekoa dela, kirol arrazoi-
en gainetik egituratzen direla ibilbideak. Beraz, erreka emaritsuaren musika asonantearen altzoan lo eginen dugu berriz ere La Mongieren behealdean, gure eguneko *promenade* terapeutikoak lagun eta Madalenak bertan ospatuz. ■

sozkoa eman genion elkarri sineste handirik gabe. Dagoeneko bolo-bolo